

altza


Eskalantegiko arteak, babestuta

berra baserritik gertu, Eskalantegi Goiko lursailetan dauden hiru arteetatik bi, ahulena, babestu beharreko zuhaitz eta zuhaiztien zerrendan sartu ditu Udalak, Eguzki taldeak eta altzatar batek Plan Orokorri aurkeztutako alegazio bat medio.

Udalerrri osoko berrogeita hamarren bat zuhaitz eta zuhaizti biltzen dituen zerrenda honetan Eskalantegi Goiko arteak dira Altzako «ordezkari» bakarrak.

Eguzkiko ekologistek diotenez, «zerrendan sartzeak ez du inola ere guttiz bermatzen zuhaitzok botako ez direnik, baina, zalantzarik gabe, hobe zerrendan zerrendatik kanpo baino». Eguzkikoen ustez, Plan Orokor berriak Berra eta Berratxo baserrien inguruan etxeak eraikitzeke aurreikusten dituen proiektuak kontutan izanik, «merezi duen zuhaitz bat baino gehiago botako dute proiektu hauen ondorioz, jakina». Ekologistek, arterik baliotsuenak salbatzea zuten helburu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Udalerrri osoko berrogeita hamarren bat zuhaitz eta zuhaizti biltzen dituen zerrenda honetan Eskalantegi Goiko arteak dira Altzako «ordezkari» bakarrak.

Gazte Lekua bete-bete datorkigu

altzako gaztelekuak, denbora pasa ahala, gero eta ekintza gehiago antolatzen ditu gure auzoan. Herrera pasealekuko 70. zenbakian dagoen gazteleku hau Donostiako Udaleko Gazteri Sailak sortu zuen eta orduz geroztik hileroko ekintza ugari iragartzen ditu inguruetako gaztetxoentzat.

Oraingoan sexualitate eta bidaiei iritsi zaie txan-

da, hain zuzen pasa den astean Boliviako «Cordillera Real»erako espedizioa titulupean Andeen mendikatea, goi-meseta eta oihana Amazonikoa diapositiba bitartez ikusteko aukera izan bagenuen ere, oraingoan sexualitate ikastaroak iragarri dizkigute otsailetik maiatzera bitartean. Lau izango dira eskainiko diren ikastaroak, astearte eta ostegunez,

otsailaren 2tik 28ra bitartean, martxoaren 14tik-apirilaren 6ra (astearte eta ostegunetan), maiatzaren 2tik-30era (asteartetik ostegunera) eta azkenik maiatzaren 3tik-31ra (astelehen eta asteazkenean). Ikastaroen ordutegia arratsaldeko 18.00tik 20.00etara izango da eta izenemateak kale hezitzaileen egoitzan edo gazte lekuan egin daitezke.




GOZO ETA BONBOI DENDA

Bertan eginak • Etxez-etxeke banaketa
Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605 ALTZA



ENSANTXE
TABERNA

PARTE ZAHARRA



txo Fuentes ezagunak zuzenduriko talde hau aurreten ez da kaleetara aterako. Arrazoia, dantza eta ikuskizun berria prestatzeko izandako eragozpenak.

Planteamendu berria?

Planteamenduan kokatu du Fuentesek donostiar inauterien izaera eta egoera: «kontuan hartu behar da hemen inauteriak benetan San Sebastian egunean hasten direla, eta tanborrada inauterietako konpartsa bat baino ez dela berez. Gero, haren ondoren, kaldereroak eta lãndeak eta artzainak datoz. San Sebastian egunetik errepikapen hutsa da dena. Horregatik diot 40 urtetako debekuaren ondoren ez zela lerro egokia hartu».

Konpartsek erabiltzen dituzten doinuetan ere arazoa dakusa Josetxok: «hemen denek musika ezberdina jartzen dute. Tradizioa duten inauteri guztietan, Río de Janeiron esaterako, inusika bera jartzen da konpartsa guz-

tientzat. Horrela egingo balitz, tanborradan bezala, ez litzateke apenas entsaiurik beharko, eta askoz jende gehiagok parte hartuko luke. Sarriegi maisuaren musikaz baliatu beharko genuke horretarako».

Ez lotsatu! mozorrotu!

Horixe dugu Olatz Behobide antzezleak aholkatu diguna, baikor mintzatu zaigun lagun bakarra. «Uste dut azken bi urte hauetan hobetu egin dela giroa, urte txarragoak izan dituela Donostia-ko inauteriak. Egia da jende gutxi mozorrotzen dela, baina mozorrotzen diren horiek lasai eta gustura egoten dira». Lotsarik gabe, atzean ez gertatzeko diosku Olatzek: «Nahiz eta gauza askorik ez jarri, behintzat aurpegi margotu!, besteei begira egotea triste samarra da eta». Aholku ona da, indioaz jautzita ala ez. Horrela izango ahal da

A. IRAZU

Etxagarainen inauteriak




Ez zen giro izango.

Zeharo kiskalita geratu berria zen Donostia, 1813ko hartan. Ingelesak zirela, portugesak zirela, kontua da ia hutsetik hasi

behar izan zutela donostiarrek berriro herria altxatzeko. Tartean zen Jose Bizente Etxagarai ere, Aita Zabalak aspaldi batean argitu zigunez. Donostiar petoa, 1773an San Bizenteko koxketan jaioa zen Jose Bizente, berandu arte mutilzar izandako udal-enplegatua. Bere lanbidea alhondiga administratzea bazuen ere, besterik eskatzen zion gogoak: donostiarren jai-ospakizunetarako zerbait eskribitzea. Gabon-kantak batean, inauterietako estudiantina eta konpartsak bestean, egun seinaleetarako gorazarre eta zortzikoak hurrengoan, iturri oparoa zuen Jose Bizenteren lunak. Bereak ditugu, dirudienez, 1813ko sutearen ondorengo bertako lehen euskal olerkiak. Harri kiskalien artetik berriro burua jasotzen ari den, eta horretaz harro dagoen, herri baten irudia ematen digu Jose Bizentek. Inauteri-kantetan, 1817koan bereziki, oso nabarmen da hori. 1853 arteko bere artzaigoki, zortziko eta gainerakotan besterik ere azaltzen digu, ordea, Etxagaraiak: bere poz eta nekeak, tristura eta jai-ospakizun ageriak, kaleak betean, euskaraz edo elebrietan bizi dituen Donostia. Maizenik euskaraz ari dira, bere idazlanetan, garaiko estudiante eta langile-maisuak. Beste zenbait iturritatik jaso genuen oihartzuna eskaintzen digute Etxagarainen inauteri-lanek, urrutirago gabe: euskara zutela donostiar askok, bertako jende xeheak eta baserrietatik etorritako bizilagunek bederen, etxean eta lagunarte itxian ezezik kale-bizitza zabalean ere lehen mintzabide.

Ikustekoa litzateke, horrezaz gainera, inauteri haiek kanpoko herriekin, Europako erdi eta iparraldearekin hegoarekin baino gehiago, seguruenez, agertzen diguten loturabidea. Lokarri izkutuak dira horiek, ordea, niretzat, gaur-gaurkoz. Kilikatzen nauten kontuak dira, dena den, eta astirik hartuko banu gustura helduko nioke Etxagarainen inauterigiro alai, itxuraz konformidatzeko haren azterketari. Gauza serioa baitira herri oso baten festa-ospakizunak: mozorroturik gaudenean agertzen gara sarri, gizakiok, geure izaera osoan, geure gogo-irrika bizien neurri betean.

hau Donostia!



MIKEL ZALBIDE